- 2.78. *Kalitsek*, ekentzen zire lenago odola ateraziz, gasa pixkan bat aterazi eta lurpean sartu eta utzi. Odola aski atera badu obe, edo gero baratzuri pikor batekin arraskatzen badu obe. Baño baratzuria ere lurpera (bota).
- 2.90. *Txintxurreko* mine gargarekin sendatzen dire. Ur irekinei bota ozpine edo bikarbotatua.
- 2.91. Ez dakit nola duen izena, baño nola sendatzen den bai: ola artzen da azukre koxkor bat eta arei bota ainbertze petrolio txinte nola urte dituen eri denak. Eta iru aldiz (hartu) egunean.
- 2.127. Limona eta alkola erdizka ongi nasi eta berarekin ongi busti burua iru aldiz egunean.
- 2.129. *Txindirioa* du izena. Tipula puxka bat bota su gorrira atera, eta olio gordina gañera eta ingura trapu xuri garbi batean txindirioa duen beatza eta berarekin ongi inguratua. Sendatua da.
- 2.140. *Petorra* sendatzen da giltxe burdinezko otz batekin ukituz alde batera eta bertzera. Eta emaztekia balin bada bere soñeko atorraren garbituz.
- 2.141. Gañeko aldean balin bada peko betazala sartuz goiti eta azpian balinbada gañeko beta azala azpien sartuz. Gisa ortan segido ateratzen da.
- 2.156. Sugeak triztatu badizu eta erreka ugalde edo iturri baten ondoan balin bazaude, nabala txorrotz batekin egin zazu ebakidura bat txistatu dizun tokian eta ur barnean ongi garbitu. Nere aita ala sendatu ze ortaik.

GAITZAK ETA SENDAGAIAK

- 2.47. Buruko minek, eztulak, txintxurreko

ERLIJO GAIAK

- 2.171. Nere idurikoz Mezkiritzko etxe guzietan egunoro errezatzen da arrosarioa. Uste dut

angelus ere ematen dela goiz, arrats eta eguerditan. Bai eta ere iatekoak bedeinkatzen direla tenore guzietan. Lenago oitura oiek zire eta uste dut aite eta amak erakutsiz dazile beren umei eta ebek ez direla gu baño makurragokoak. Meza egun geienetan bada eta entzuten dute, al duten guziek.

2.172. Iruetan ogei urtetaik goitikoek, geienek izen gindue Erriko erretore jauna eskola edo ikastola irakaslea eta ikasi gindue ongi Jaungoikoaren amar mandamentuak eta maitatzen Eliza ama sanduarenak, eta ez dut uste niorek ere egiten duela otoitz batere ikusi dezaten; ez dute nai alakorik. Zenbat aldiz eta zenbat juan ote dire aitortzera Orreagako Elizera... Egiten duten gauza onak biotzak eskatzen diote. Nik badakit oraño obeak direla barnetik erakusten duten baño eta dakidelakoz mintzo naiz. Denak egiten dituzte bear dutelakoa eta beardure au erain dute beren umetan eta uste dut ala jarraituko direla altzina.

JAIOTZATIK HILOBIRA

2.174. Lenago uste gindue *Berregutik* edo *lezemotz-ko* ondotik ekartzen zuztela aur sortu berriak.

Erraten zigute acienda zerbaiten bile aterazela aite eta negarra aitu zuela eta biletuz negarra nondik eldu zen juan zela eta aur tiki eta pollit ure bilatu zuela. Bi zarrenak gogotik juain gine ia biletzen ginduen guk ere baño etze komeni mendi alde artara atera gindezen toki txarrak zire, eta amai ez gindeko bakarrik utzi bear buruko min audiak zitue eta etxearen ixilik egoten bagine sendatiko ze, oiek guziek erraten zigute eta gelditzen gine ain kontent. Baño asten ze jendea etortzen amain ikustera aiten ama eta arrebak eta an zire galdera gisa guziak. Zer orduz libretu da? Neretako galdera ori zen gaitz audiencia ekartzen zirena nere burutara: non zego libretzeko, lar arte audi batzuren artean? espetxean? niorek etzigu burua argitzen galdera ebetaik. Bitartean ama guatzean. Zer du amak? Buruko min audi. Bitartean arropetan odolak; eta odola nondi atera zaio? nondi atera zaion sudurretaik, eta orgatik dago guatzean? Buruko min audi du. Baño erranak erran, nik galdera baten gibeletik bertze bat; baño etzirete argitzen deustako ilunegi ikusten nitue gauzak. Nik zazpinituen martxo batean izen zue nexka bat eta ez dakit altzindu zen aurra, dakidena da Txerrri bat ilbearra ginduela eta aurra sortu eta amar egun gutiz gora bera iltzute txerria, baño ama

guatzen zego eta berandu zue anitz sendatzea. Bitartean amatxik egin zitue amak egiten zituen lanak eta txerriltzeko almortzuen gizonak solas anitz egin zute eta nere anaia Joxé nere urbilena asperturik gizonen solasequin juan ze berak zeuden tokire eta erranziote: Zauzte ixilik gizon kiskilek ama eri eta ainbeste arroitu. Aite gelditu ze bat eginik ikustean sei urte inguruakoak alako gizontasuna agertu zuela. José bere gizontasunaikin eta nik galdera gisa guziek eginez azi gine aite eta amain besta guziekin. Gañera aitetxi eta amatxirekin. Nere galdera geienak amatxindako zire eta arengandik iakinak ditut orai dela egun eta berrogei urte altzineko oitura solas eta bertze gauza anitz. Neretako izan zeiken amatxik oberena eman zire zeruko Aitak. Eskerrak Jauna. Aur bat sortzen bada eta bere aita ez balinbada etxearen bilatzen zayo berrie emateko, gero bateioko aitetxi amatxiei erraten zaiote.

2.175. Neure etxearen eskutitz zenbait egin bear ze kanpora berria emateko, nik egiten nitue. Erriko osaba izebei ematen ziole emaginek berak; aitak ematen ziole bere aita eta amai. Nere aitein aite ni ezkondu onduan il ze. Eta aitein ama nik amar urte t'erdi nituelaik, etxeko aitetxi nik lau urte t'erdi nituelaik eta amain ama nik ogeite iru nituelaik. Amatxi au etxeko ze eta au juaten ze erriko erretorai berria ematera eta bataioa eskatzen aur sortu berriaren-dako. Anitz egiten zute zer egunez eta tenoretan izen bear zen bataioa. Aurra sortu, ongi garbitu beztitu eta paratzen zitzaio bere seaskan. Au zurezkoa ze eta lemekiko aldean aita etxearen balin baze aitak artzen zue bere aurra eta paratzen zue seaskan. Burua estaltzen zitzego gorra batekin etzeien oztu. Erri ontako geienek nik uste dut berdintsu egiten zuztela gauza berak beren aurtxoekin.

2.178. Aur ilak edo iduritzen zuena ila zela, sortzean artu eta ura botatzen zizaiote erranez: kapaz bazera bataio sandua artzeko nik bataiatu zaitut Aitaren eta Semearen eta Espiritu Sanduaren izenean, Amen. Ingutu eta uzten ze bero beroa zegon tokien eta uzten ze denbora puske ia bizten zen eta lau edo börtz orduen buruan oztua balin baze uzten zitzaio ortzi baño len denbora paska bat geiago eta gero ia ila zela eta etzela itzultzeik goratzen ze denbora geiago. Arrontilik zegolaik, etxealtzineko baratzean lurpera sartzen ze sagar ondo batera urbil, tella batekin señalatua uzten zue negarraldi zebaitetik aitak, galdu zuelakoz aur bat.

2.179. Aur ondokoak baratze xilka ongi koro-

pillatu ondoan, kordon batekin gasa garbi berean, baño bertze toki batean sartzen zire lurpean.

2.180. Nere denboran aurra osasun ederrekoia izenagatik, laister bataiatzen zire. Niri ala egin zirete biramonean ortzeguna zen. Dagonilain 3an sortu, eta 4ean Iemexiko ortzilarean bataiatu.

Aurrak bataiatzen dire erriko elizan eta bataiatzen zitue beti erretore jaunak. Bataioan izeaten zire, bataioko aitetxi eta amatxi beren lagunekin, emagine aurratekin; eta aurrak ez balin bazue anaia bat sei urtetaik goitikoa erematen ze lengusu bat, baño mutikoa, bateioko kandela idukitzeko bataioko denboran; denbora berean lenago apeza irakasle zelaik eskola aur guziek juaten gine elizera eta geurek errezzatzen gindue arrosario bat Ama Birjiñari eskatuz aur ura Kristau ona izen zeien. Bakarretan ematen nue nik! Orai ez dakit oitura ori galdu den edo ez. Beti ere, Dn. Manuel Lusarreta Erreak paratu zue. Erri bereko semea ze eta egin zue al guzia eskolan eta Elizan gure onetan; baño ni arritzen naiz anitz nola alako jende ona izanik ere nola ez duten deus egin aren oroigarri zerbait paratuz bere sortetxean edo Eliz atean edo bertze nonbait. Niri iduritzen zaide etzagola niorei gogoratu «plaka» bat bedere paratzea. Gañera onek goratu eta altxatu zue euskera. Beti ere bataioan egoten zire eta Elizen erriko aur guziak. Bataioan aitetxik idukitzen zue aurre eta amatxik artzen zue bere eskuan aurraren esku eskuña.

2.181. Emaginek erematen zue, eta du, bataiatzera. Zenbait galdera erantzi ditut altzinego.

2.182. Lenago nere aita eta amaren altzinetik il artio niri bateiatu zirena Dn. José Eugi. Au ere euskalzalea ze baño aurren izenak berak paratzen zitue denak; nere amatxik erraten zire: erran ziotelaik nexkakoa nitzela erran omen zue: «gaur aguztuein laua, Santa Perpetua da eta Perpetua deituko da». Eta nerekin bezala egiten omen zue denekin. Orai idazten duden au berarekin gertatua da. Nik aitua dut bataio artako aitetxi berai. Aitetxi au Esnozko errikoia ze, Erroibarko bertze erri bat, Antonio zue izena eta aren iloba bat ze bateiatu zutena. Apezak iaki-tein mutikoa zela erran ziote: Gaur San José da eta José deituko da aur au. Erran ziote: Ez, aitak izen ori du, eta ez dute nai izen beraikin deitu daien semea, orrengatik denek nai dute Antonio deitu daien, baño ordu artio denek bu-rue jasten zute aren naiera eta erran ziote: ez duzie José nai, orduan deituko da Victoriano ez

zuek eta ez nik ez dugu *victoria* irabazi eta orrengatik Victoriano paratu zio. Nik ezagutu ditut denak. Apeza mile bederatz egun eta amarrean il ze. Eta oroitzen naiz ederk beraz. Goian beude denak. Orai ez da alakorik gertatzen. Beti ere uste dut aite eta amek aitetxi amatxiekin konpontzen direla afera ortan eta uste dut obe dela aita eta amak egin dezaten beren naia ongi kostaria dute. Baño lenago orai duela 140 edo 160 urte bateioko aitetxin izena ematen ziote mutiko balinbaze eta bateioko amatxina nexkakoa balin baze. Orduen zire denborak Juan eta Juana anitz izeten zire eta neure Amatxik erran zire bein batean San Juan Bautista maite zuela anitz euskal erriko jendeak eta santu onek gordetzen zituela sorginkerie guzietarik, orrengatik aur geienek Juan edo Juana zutela Iemexiko izena. Nere amatxi bera Juana Antonia ze. Ni oroitzen naiz aski etarik: Juan Martin, Juan Miguel, Juan Antonio, Juan Angel, Juan Esteban, Juan Joxe, Juan Bernardo, Juan Kristobal, Juan Fermin, Juan Pedro, Juan Felipe. Eta emakumetan berdin: Juana Axena, Juana Miguel, Juana Barbara, Juana Mari, Juana Joxepa (Juanexpa), Juana Martina; eta geiagokoak.

2.183. Aurre garbitu eta jantzi ebek paratzen zaizkio. Lenik atorra arizko fin bat, gero iakaba lodixagokoa gero maindrekoa ilauriko lodi bat beso eta xangoak gurutzetuak eta inguretuak eta paxa 18 edo 20 centimetroin zabalta-suneikin inguretu aurra ongi gero faldona deitzen den jantzi bat, geienetik eskulan anitzekin eginak gero elleaikin eginikeko tokilla batekin ongi inguratua; gañera gorra bat faldonain eskulan gisa berekoakin egina. Ola janzten zire lenago neguan, orai eta uden jantzi meaxago-koak aski dire. Kutun bat Sn. Juanen Ebanjelioa barnean duena gerriko paxan sartzen zaio.

2.184. Aur geienak egunain erdian bataiatzen dire eta balinbada besta egun bat obe, oiek protxatzen dire, ez dezaten denbora galdu lan denboran eta bazkarie egunorokoa baño obexagokoa egiten da; obeki erran dezaket, egiten ze. Gutiz gora-bera ola ze: Aragi saldarekin zopa ona, txitxirio salda, ollo saltsa, eta umerri errea; eta esnearekin eginikeko bazkal ondoko zerbait eta denen gibeletik aketa eta anisetue, patxaranekin egine eta koñak delakoa bakotxak ar zezan maite zuena. Bateioko bazkarietan juaten zire Bataioko aitetxi amatxiak beren lagunekin, aurren aitein eta amain aite eta amak, bai eta ere aite eta amain aurrideak, eta bai eta ere erretore jauna. Nik ala ezagutu ditut beti neure denboran, eta beti aurraren etxeen. Bazkaltzera

juaten zirenek beti egin diote orioigarri zenbait aurrari eta bere amai. Ones-naiz ollo audi eder zenbait etzein falta amari ollo salda ona indarrean sartzeko; gañera bizkotxa onak eta ardo goxo zenbait jerez, kina edo bertze zerbait eta aurrari soñeko jantzi eskuz eginiko zenbait... Azi orduko jantzi anitz bear izeten da eta jendeak ori idukitzen du gauza oiek. Nere idurikoz Baztanen gauza auserkiagokoak ematen zute baño geienek dirua ematen zute, erosteko bearago ginduena. Nik an izen ditut sei eta Iruñan iru.

2.186. Lenago berrogei egunez etzekote uzten etxetik ateratzen eta atarira bakarrik balin baze ere buruan tella bat paratu bearzue, nik ikusi izen dut neure izeba bat neure aite eta ama baño adin gexagokoa, neure galdera anitzezin iakin nue oraiño etzela garbitue nere izeba jendeain altzinean. Orduen ez nue ulertu eta oraño kostatzen zaide.

2.187. Ez; bateio egunean bakarrik. Apezak bedeikatzen zigu eta ogi eta ardoa erematen ziizaio. Eta orai elizara ateratzen da sandagilleak iortzen duelaik.

2.188. Bateioko aitetxi amatxiak orioigarri zenbait egiten zute. Nere anai batei 2 ardi eman zeizko bere bateioko aitetxik. Onek bere izena paratu zio bataioan, kutxe tar bat sos zerbait barnean. Ongi iduritzen zaionetan eta ongi eldu zaio-telaik.

2.189. Bai urte betetzeak geienean dehenak. Eta Sandu eguna ere bai aite eta ama bizi diriño. Zenbait aldiz egiten dire orioigarriak baño ongi eldu zagolaik.

2.190. Seaska ikusi izen dut etxe geienetan. Sortu berriena geienean saski gisa egine zume-rikekin. Berantxago zurezkoak edo metalezkoak Iruñen erosia. Bakoitxak nola maiteduen eta pixka bat mogitzeko moduan.

2.191. Aur gurdi edo kotxe tiki batean baño aín tikiak direlaik oberena seaska da, titia, loa eta ixiltasuna.

2.192. Ortzak laister atetzeko ogi koxkor bat eskura ematen zitzaio aurrari eta eginalak egi-nen zitue aurak ozka edo arrakatu bedere oiek gero ogie berazten zuelaik ekentzen zitzaio beratza eta bertze puxka bat gogorra ematen zitzaio eta nekatu artio berritzen gindio ogi koz-korra. Solas eginezteko nik aitu izen dut obedela ogi bedeikatua iru eliztaik artu bear dela igande berean eta egun berean ianazi, ori eginez iru igandez arront garbi itz egiten dutela. Aitu

izan dut ere atez-ate eskatzen ari direnei ogi puska bat eroi eta aurrari ianazi. Nik ez dakit zein den oberena, bakarrik zenbaitek fede audi-a dutela bi gauzeta. Ibileztekiko nik uste dut oberena dela indarrez bete daiela iarrik dagon tokitik txuti daiela bera eta gutira gutira as daien alki batei artuz bere eskuekin. Ori da lenik indarrazi aurra eta ez manazi pausu batere inderra artu gabe.

2.193. Ortzak ateratzen badire bere gise aur-rak artzen du bere esku eskuñean eta botatzen du sura eta erraten du: tori zarra eta ekartzu berria, laguntzendakonak aurrari eta aurak berak aite gure bat errezzatzen dute eta egun gu-tien burian agertzen da ortz berria.

2.194. Lau bortz urtetan. Lemexiko Jaun artzea zapta urte inguruan egiten ze. Baño lenago amabietako inguruan zute; nik egin nue 6etan, urte ontan bagine adin guzietan Jaun artzaleak. Ni gaztena nitze zerengatik urte artan Pio amar-garrenak manatuzue emateko aurrei gure Jaune Urte artan bazire seietaik amabietarañokoak. Egundaño ezta Mezkiritzko elizan ainbertze aur lemexiko aldiz Gure Jauna artzen ikusi. Birenaka paratu zigute al bezain berdindua Bazkoko ur-bilen igandea ze eta jorraillearen 21. Eliza betea zego. Auritz berriko semea, eman zigun apeza, Simon Urtasun Jauna zego erretoretako. Bazitue bi urte il zela José Eugui jaunak eta D.^o Manuel Lusarreta sartu artio egon zire lenik aita kaputxino batzuk bat Morentingo Guillermo aita eta Lakuntzako Wenzeslao aita, ebek egon zire D. José Eugui jauna eri egon zen demboran eta den-bora ontan il ze nere aitetxi Juan Migel. Mile bedratzi egun eta amarrean ilbeltzaren ogeita iruen. Apeza Jose Eugi jauna urte berean eta jorraillearen amekan il ze Goian beude denak. Lemexiko jaun artzean ez dire bazkari audiak egiten; baño bateioko aitetxi amatxiak eta bizi badire bertze aitetxi amatxiak ere bai; baño geienean guk egiten ginduenean gure lengusuek erraxki egiten zute, eta orduan etze osaba ize-baik batean ere bakarrik; bakotxak bere etxe-an lana franko. Mezkiritzko elizan nik ikusi duden lemexiko Jaun artzea xuriz beztia egin zue Antoneko Justa zenak; geienak azul marinoz egiten gindue. Berantago asi zire nexketan jantzi zuriak lemexiko Jaun artzean pollite da baño orduen etze oituraik.

2.195. Guk amar urtetan lan anitz egin gin-due, eta amabietako eskola uzteko lana izen nue Apeza eritu zelakoz. Eskola uzteko lana izen zue eta irakasleik etze eta gu, ikasten ginduena ikasi gabe geurengandik. Irakurtzen gindue al guzia

idatzi ere bai. Gisa guzietako kontuak ere geuren etxeen. Baño adin ortako berdin erematen zigu ikatz egitera nola alorrera altzurtzera eta patata eraitera xorratzera nola atratzera, Iretxe biltzera egur egin eta astuarekin etxera biltzera, denak. Amabi urtetako Mezkirizko aurak irakasleik gabe, lanak egin tuzte! eta egiten tuzte. Orai eskola da lemexikoa, eskola da baño etzeilaik... denbora ongi protxatzen dute. Mezkiritzko umeak dire eta lan egitea ongi ikasia dute.

2.196. Lenago erri ontan baze: «mutiletan» sartza deitzen ze. Amazazpi urtetan sartzen zire eta berek ateratu bear zute jota bat eta berek abestu, nere anaia Joxe sartu zelaik ala ze geroko eta altzinagoko gauzaik ez dakit.

Mutilek besta eta igande artsetan atez-ate abesten zuzte beren kantu edo abestiak erriko neskatxa geienei. Urte guziko bestak pusken ere arinagokoak dire gazterie guzia biltzen bada. Aietan dago indarra bai eta ere umore ona ¡Gora gazteri guzia!

2.197. Neskak balin badute dantzara zaletasuna neskatxak elkarren artian dantzatzen dire amalau urtetan gutiz gora bera; mutikoak amasei edo amazazpi inguruan baño neskatxuekin. Adin ortan jota eta porrusalda naiago dute. Ez da toki ertxik batere. Dantzatzen dire denen altzinean eta ala egiten zire orai dela 50 urte ere. Orduen orai bezala dantza lotue eta laxoa ere bai aldizka. Baño orai duela iruetan ogei, Estellako gaiteroakiotzen zute soñua eta Bentarrako larrañan nere idurikoz Inguruntxo anitz dantzatzen ze; aur guziek bagindekie eta gustoara dantzatzen gine; baño berantago juan zire Lumbierko soñulariak eta orduen asi zire dantza lotuak eta guk utzi gindue dantza aurregi ginen guziek.

2.198. Ez dut egundeño ezagutu jantzi desberdinik. Ni aur aurra nitzelaik eta berantago ere baze oitura bat nere idurikoz pollite, baño orai ez dakit ekendua den edo baden oraño. Urteoro bazire mayordomo deitzen ziren bi mutil; eben etxetan lo egiten zute soñulariek eta yan eta edan, bertze mutilen etxetan baño mayordomoein etxetan ere bai. Mayordomak ere bi zire eta ebek bi mutil mayordomoekin asten zute dantza atsaldeko bortzak inguruan eta bi dantzaldi egin onduan erematen ziote mayordomo eta soñulariei txokolatea esneaikin egina, eta bizkakin edo ogi xigortuarekin, eta ur otza limon eta boladoarekin nasi bakotzak bere ur ontzian edateko txokolatearen ondotik. Artu, yan eta edan ondoan erematen zuzte ontziak eta itzultzen zire dantzara.

2.199. Orai ezkondiukoko batei eta bertzei galdu dut eta batek erran zire: Nik aspaldik maite nue orai duden senarra, baño sekula ez nue agotik aterako, baño zure aitarekin solas anitz egiten nue eta berak erran zire zu etzen-deike ezkondu olakoai? berak maite zaitu anitz eta gogotik presta leike len baño len. Orai go-goa artu eta zer iduritzen zaizun erran zadazu. Nik erraindiot berai erran dizudela. Arriturik gelditu omen zen eta, gisa batera, ez erran eta uzteko gogoa etorri omen zitzao. Baño bere buruan egon omen ze; nik aspaldik maite dudena deus erran gabe, erran berak maite direla; nola erran biar dut ezetz? Denbora utzi pasa zeien eta denbora juan zelaik erran zio solas egin bearzuela berarekin eta gutira-gutira ezkondu zire eta orai badituzte iru seme eta iru alaba eta elkarrez arront konten dire.

Ez dut uste ezkontza guziak gisa ontakoak direla baño ori da bat. Uste dut badirela bertze batzuk aixkidetasunean asi direnak. Nere aita eta ama arront gazte asi omen zire ori neure etxeen eta beretaik aitua dut. Nere aitari aitu izen diot. Nere aitaren aitak bi anaien seme alabak zirelakoz naizuela utzi zezatan elkar, baño semeak etzeko deus erraten eta aitetzik nai izen zue. Etxe alde audi batera semea nausi sartu eta erraten zio emanen ziola ikusi zuen idi pareik oberena eta aiei ongi eldu zitzaison azienda guzia. Baño erranzio bere semeak; nik zetako ditut eskeintzen direzun guziak ezbaliñbadut neskako ori andretako maite? nik neure lengusie maite dut aspalditik eta berarekin ezkonduko naiz, berak ez badire uzten. Eta elkarrekin ezkondu zire eta ni naiz beren lemexiko umea. Beti iduritu zaide mundu guziko aite eta amaiak oberenak aiek zirela. Jaunari eskerrak! zenbat zor dituden! Au bertze gisako ezkontza; eta bakotxa bere gisakoa. Berdinik...? nere ustez batere.

Erri ontan aideak aidekin ezkontzea, nere aita eta ama bezala, egin dire bat baño geiago baño ez da aurretan maketsik atera. Erri berekoak elkarrekin ere aski badire. Urbileko errietan ere emendik arata juanak eta bertzetaiko onara ere bai.

2.200. Nik ez dut iostaera oiek ezagutu baño au akitu baño len entzuten badut errain dut.

2.201. Erri ontan badire nere adintsuko edo urte geiagokoak ez direnak ezkondu. Dudarik gabe ez dute ezkontzari zaletasunik izen eta naiago izen dute gisa ortan bizi. Beren aizpa eta anaiei uste dut ongi etorri zitzaiela beren denboran; beren naia aisago egin al izen dute.

Baño bakotxak berak daki nolako bizia ereman duen. Ni ez (naiz) nior afera ebetan sartzeko. Nere idurikoz obeki ardezakete gisa ortako bizia neskatxek gizonek baño. Ez dut egundaño auteman irri egiten diotela ez gizonei eta ez andrei. Ez dute ez batek eta ez bertzek lana uzten eta gisa ortan ongi dire.

2.202. Nik ez dut egundeño ezagutu alakorrik. Ez dut uste niorei kostako zaiola erratea ezetz ez balinbadu nai, eta gisa berean nai badu errain dio baietz batre izitu gabe. Ez da ez bat ez bertze gelditiko, bertz egun baten esperoan egoiñ.

2.203. Gizon batek nai badu ezkondu berdin mutila nola alarguna ez dut uste alketiko dela erratera ezkondu nai duela neska edo andre maite duen batei.

2.204. Ez dut uste badela denbora berezik gauza ebendako.

2.205. Ez dut uste aite eta ama sobera sartzen direla beren umen ezkontzeten. Uste dut goienean errain diotela: neskatxa au edo bertzea gogotik ezkondiko da zurekin; ez dakit nola den zuk artu bear duzuna baño au arront ona da. Edosos gexago izen zinduke bertze onekin ezkonduko bazine; ez dut uste ortaik pasatzen dela nior. Ez dire nere iduriko sekula umen naiaian kontra juain gogoratuik ere: *andre onek ze mutur bildue duen, ez du gure semeak oraitio bezala nai duena eginen.*

2.206. Nik ez dakit oraiko gauza ebetaik, baño uste dut Iruñako iateko etxe zenbatetan solas aldi ederra egiteko beren aferen gañan.

2.207. Nere gizona kanpokoa ze baño ez dut uste deus ere trabaik izen zuen neri andretzat artzeko. Andregaiia xuxentasunean egon bada bere denbora guzian ez dut uste gaizki ibili bear duten deustako. Emengo mutilek ez dire kiskilek xuxenendako.

2.208. Neretako bai seurik zarrena naiz eta berek eman zirete donazion deitzen dena. Gu ezkondu eta bi ilabete baño len egin zire eta lege gizonain etxeán eta Nafarroko legean.

2.209. Nere aita eta amak egin zute eta lege gizonak galduz zirelaik nola egin bear zuen, segido erran nion: Nafarroko legean eta al zuen bezain ongi nere aite eta amain alde. Nik ezagutu (nue) ongi neure senarra paper abek egin gabe, baño egin nai zute len baño len eta amak nai zuen bezala egin zire, gero jakin nue nik amatxi zenain izanean zegola eta arek paratu

zuelaik amain izanean manatu zio gero ni adin batera irixtian neretako zela dena; ori erran zire Urmeneta jaunakErroibarko idazkaria zelaik. Orrengatik zue nere alako utzi naia eta nik erraten dut ez nuela ezagutzen neure senarra. Iduri zue arront ona zela, baño nik beidetzen nue egun artan ez balinbaze ain ona aterratze, noren eskuan uzten nitue aita eta ama? Orrengatik lege beraikin estutzen nue neure senarra eta neuronei. Sobera ona atera da baño aurregi etxe batean buru egiteko. Gañera bagine nere aite eta ama gu eta nere sei aurride. Aitek manatu zire nere aurridek ez balin bazute etxeko lan egiten ez mateko deus ere. Baño gauzak etzire sobera ongi atera eta biziai buru eman beariko zaio eta indartuz makurtasunekin gero eta geigo. Juan dire denborak. Guzietatik es-kerrak Jaunari. Gauza ebetaz ez dut deus geiago erran bear; dugun bakeak balio du gauza guziek baño geiago eta ori badugu denekin.

2.210. Gauza ebengatik ez dugu sekula bestaik egin. Bertze etxetan ez dakit. Gauza ebek ixilik idukitzenean dire, geienean.

2.211. Dote kontuik guti iakin dut nik. Badakit Etxealdataik ateratzen dela zerbaite baño ez nik uste nuen bezain bat. Nere ustez etxe batean ez bada zorrak nagusie kampokoa balinbada onek sartzen duen dotea banatzen da andreatzin aurriden artean guti balinbada uste dut beren aziendataik paratzen dutela aite eta amak; ortako etxealdataik obeki atera daike etxetaik baño ebetik zorr aundietan sartzeko bide xuxena.

2.212. Ez dakit erri ontan gertatu den ola-korik ez dut egundaño aitu.

2.213. Erri ontaik, geienean bidaldi edo biaje bat egiten dute berdin Zaragozara nola Erromara eta geienean ekartzen dute oroirgarri bat egon diren tokitik; bidaldi ebek egiten dire nik zortzi urte nituenetik onat. Lenago ezkondu biramonian erriko elizan ematen ze meza bat senar emazten ilikeko senide guzientzat. Nik neure ezkondu nitzen biramonean eta nere bortz alabenetan egin dut oitura onek erakusten diguna; oroitzea geuren iletaz geuren besta aundietan.

2.214. Erriko elizan bakarrik biek Mezkiritzkoak balinbadire, eta bertze erriko edo irikoa balinbada bietarik bat, ango elizan; nongua den ezkondu bearduena emenguaikin. Ezkondu bear duten bien elizetan. Neskaín erria Erriko xokoan nexkain aitek ematen zue ogi eta ardoa erriko mutil guziei. Afaltzen zute aragie edo berek nai zutena aitein ogi eta arduarekin eta afaldu onduan aketa eta edariak ebek ere neskain aita-

ren kontu. Gero afaldu onduan mutilen abesti edo kantuak nexkaindeko.

2.215. Geienean izeten dire nexkaren aita eta gizonain ame. Besoa eman, aitak alabari eta semeak amari.

2.216. Mutile bere aide eta lagunekin biltzen da ostatu batean, ez bada bere sortu etxean. Geienean afaltzeko tenorean eta ongi zaioten tokian afaltzen dute bildu diren guziek.

2.217. Nere bodra deituak izen zire aitexti eta aitaren anaiak eta arreba guziak beren seme alabekin. Berdin-berdina amarenak; bai eta barri-deak. Ebek guziak uste dut deitu zuztela nere aitaren sortu etxeakoek. Neure adixkidei neuronek erran niote. Aitatxiri erratera juan nitze neure aitarekin. Erran niolaik azteazkenean ezkondu gogo dut Baztango Iruritako mutil batekin eta nere idurikoz arront ona da, erantzun zire bere lauetan ogei eta sei urteko agurgarritasunakin; kontu ez daiela izen erran zarrak erraten duena, *Urrunera eluzeakurrez, ellegatu eta lurrez*. Zonbat aldiz oroitu naiz erranzar ortaz, ez lurrezkoa zela bera, baño edozein gauzetara ongi daien esaera zarra delakoz.

2.218. Oitura ez dakit baden edo ez, baño sosdunek bear bada egiten dute. Ezkon berriei egiten dire oroigarriak. Etxea paratu bear badute gisa anitzeko gauzak bear tuzte eta nai eta ez oroigarriak izete dire, ireuten dutelakoz anitz demboraz.

2.219. Andre gaia in atarien biltzen dire berain aide, barride eta aixkideak eta gero ongi paratuak juaten dire biraka-biraka elize aterano. Orduko gizon gaia in aldekoak an daude. Nerean Iruritatik etorri zire aide eta aixkideak eta ebeitan bazire txixtulari eta atabaldarie eta nere etxe ondotik elizako aterano juan zire soñatzen; «Emen eldu naiz baño beldur naiz penak izein ditudela maiz»... Elizan ere soñu bera io zute.

2.220. Eta gisa ontan sartu gine. Nere gizona bere arreba eta lengusuen artean eta ni neure aita eta amain artean. Ama birjiñaren aldare batean egin zigu ezkontzeko egiera guziak, eta meza sandua aldare nagusian erretore Jaunak emana. Itzaldi eder bat egin zue, baño erderaz uste dut euskarik etzekiela, sobera ongi mintzo zue erdera; etzue ezagun batzekiela itz erdi bat ere euskeraz Dn. Miguel Beortegui Perez zue deitura, Onei zor gindue geuren bizia senaremazteak Espaňako gorrotoan gindeudelaik nere senarra jo zute Mezkiritzen gindeude eta, Bersolari Euskalduna zelakoz dudarik gabe; Euguiko

Guardia Cibil deitzen zen batek jo zue. Falangista batekin juan zire gure eske baño ni Iruñen nindegia nere gizonain aitain zain arront gaizki zegolakoz, eta nere gizona bi aurrekin zego geren etxean. Goiz batez agertu zire bi etsaiak eta etxetik aterazi ziote eta jo zute eta erran ziote nere gizonak: nola ez duzie erretore jaunari galdition nior ukitu baño len? eta juan zire erretoea zegon tokire eta galde egin ziote ia nor eta zer gisakoak ziren eta erran omen ziote niri il ondoan gañetik pasatu bear duzie oiek guziak ukitu baño len; emen denak onegiak dira, II zazdazie neri eta oiek denak utzi bakean. Eta gisa ontan atera zire il nai zuten eskuetaik, Mezkiritzko batzuk ere bazire il bear zutenetan; ez dakit zetas. Euskeldunak zirelakoz? izen dainei baietz; betiere ez gine maitetuak beretaik. Jaungoikoak barka dezazela gaizki egin guziak.

2.221. Ez dakit zetaz baño gurekin ziren jende guziak Jauna artu zue eta Eliza bereko soñua jo zute bi apez ikasle bazire barkazioak zirelakoz eta errikoak zirelakoz; erriko abeslariak ere bazire eta arront elezkizun pollite izen ze. Nere idurian orduen asteazkena ze, orai larunbata bezala. Bertze alde batean erran dut orduko oitura.

2.223. Ez naiz oroitzen deus ere ontaz.

2.224. Mezkiritzen ez baño Iruritan bai.

2.225. Ez au ere ez dut aitu eta ez dut ikusi.

2.226. Ez dakit baño iduritzen zaide baietz; amatzik egiten zuela erle, aitetxi il zelaik nere altzinean sartu eta erle tokietan jo eta erran ziote aitetxi il zela eta argizeri geiago egiteko. Marrume bat egin zute denek. Bertze gañerako aziendari ez naiz ain garbi oroitzen baño badut itzel bat bezala iduri aldiz baietz eta iduri aldizka ezetz orregatik ezin erran dut garbi ez gauza bat eta ez bertzea.

2.227. Ez da alakoik.

2.228. Ontaz ere nere iduria da baietz.

2.229. Neure senarrain eta amain ertearen dindeko amaren ondoan zego aita eta aitetxi ere urbil nue gero nere iru aizpa eta anaiak ere. Iruetan ogei bat ote ginen bazkarien. Afarian iruetan ogei. Biramonean aixkideak ez baño aideak eta barrideak bai bazkaltzen zeude. Afaltzera gutiago oraño. Maia bedeikatu eta bialdeko ilendako otoița egin aiteguriarekin. Ez dut bertze gauzik gogoan. Gure etxean etze egin deus ere etzigu niorek aipatu. Amatxi orduko ila ze eta ama etze deustaz oroitzen ikusi edo aitu bazue zerbaite.

2.230. Ez, ezta olakoik deus egin. Bertze gañekoetan ez dakit egin duten edo ez; nik aitu eta ikasiak paratzen tut baño ez ikusiak ezin paratu.

2.231. Bazkal ondoan Txistulariek jo zute soñue al guzia eta atsalde guzian dantzan aitu zire baziakdu zuten guziak eta erriko gazteria ere, geienak lan guziak utzik alde batera dantzai eman zio Mezkiritzko erriak. Guk bide edo iru egun baño bidaldeik ez gindue egin.

2.232. Anitze egun bat edo bide besta audiaren buruan juaten dire Bidaldi bat egiten dute eta amabortz egun egoten dire etxera itzuli gabe eta nere idurikoz ederki egiten dute geroz lan aski egin bear izein dute.

2.233. Ez, geiagokoik ez da egiten.

2.234. Bai, guk Jualeak erraten dugu eta aitu izen dut lenago Jualeak jo zituztela an edo emen alargun zarrak ezkondu zirelakoz. Artsean arrosario onduan eliz Gelan ezkondu zire bide, ni franko aurra nitze baño oroitze naiz aise andrearen gizona iltzen egunaz, eta nola erran zuen nola andreak paratu zion sakelan tabako eta puroak. Nik ez dut ikusi baño andreak berak erraten zue eta aitu izen nio garbi eder.

2.235. Gauza ori ez da emen agertzen Jaungoikoai eskerrak baño egunoroko zenbaiten irakurtzen bada, arront gauza gaistotako artzen dute denek. Emen ez bada ez dezake niorek gitzaperatu niorei.

2.236. Olako saltsa zikin oiek ez dugu eza-gutu oraño Jaunari eskerrak.

2.237. Berdin erraten dut gauza ebetaz. Ira-kurri dugu bein edo bertze emendik urrun ger-tatu dela baño emen ez dugu sekula ez ikusi eta ez aitu.

2.238. Eriotza. Niok baño lenago zautzen du il bear denak, niri nere gizonak ondar aldian gelditu zelaik ez ongi erran zire, *orai artio atera naiz baño onek eremanen dire*. Nik erran nio: ez gizona orai baño makurrego egon zara, baño bera segur ze bazeiela altzine eta ilabete baten buruan il ze. Etxeko aitetxik, nere amain aitak erran zio amatzirri: Antonie gaur ilen naiz eguerdiraño ez baño atsaldean bai, eta atsalde artako iruetan il ze; olako anitz ikusi dut; neure amak berdin, gaur ilen naiz eta egun artan il ze. Baño bertze gauza batzuek ere izeten dire ezagutuazten digula norbait ilen dela. Nik aitu izan dut andre batei baño geiago, tzakur bat zaunka eta zaunka ilunak egiten eta amatxik eta bertze

andre zenbaitei ere erraten aiei, norbaitek juan beardugu laister; eta gertatu ere ori eta anitz aldiz. Orai duela iru urte iltze nere anaia Joxe; gazteik asi ze mendira juaten aitekin, ni ere geienean juaten nitze, baño ama edo amatxi ez ongi bazire edo bertze gauza zenbaiten gatik geldiazten zirete eta orai errain dudena gertatu zenean ni ez nitze ez aitekin eta ez anaiaikin. Baño aitek etxeen sartu bezain laister galdin zue: nor il de? Joxek menditik atera garen bezain laister erran dire nor il ote da? Il urrine bada eta etxerako bidean beti gauza beraikin. Nondik sumatu bear zue il urrina Urrungo menditik edo Mezkiritz Urrungo mendira? eta egie ze il zela norbait, urduen Mantxiko deitzen ze eta adinetako gizona ze. Baño aitak erraten zue norbait iltzen zen guzietan berdin sumatzen zuela usaña eta nere aitek ez zuelaik sentitzen urrinik deusenik eta beti berdin arritzen ze alako urruntasunean nola senti al zue bere semeak eta etzue mutikoak zortzi urte baño geiago...

Nere gizonak erran zire egun batzuk altzine-gotik ez nezola utzi; nik laguntzen banu zerura juain zela eta erraten nio Zeruko Aitak espero zuela sari aundi bat emateko. Denbora anitz balin badu gaizki zela geienean gure Jauna artua eta oliedure ere bai gisa ortan badago orduen etxekoek bereik obeki konprenditzen dute.

2.239. Guk Mezkiritzen egin bagindue gauza guziak orai errateko gauza geiago izein gindue baño erri ontan amar egun bakarrik egon ze eta geurek egin daizkogu gauza guziak. Il ondoan garbitu eta beztitu ere neuronek alabekin eta eben gizonekin egin gindio eta iltzerakoan ere denak nerek zeude.

2.240. Zertaz il den sendagilleak paratzen du paperean eta ortik iakiten dugu. Ez dut uste niorek uste duela anima uso baten iduri atera dela gorputzetik. Iruñetik ereman ilkutxa eta an sartu eta sala aundi batean mai tiki baten gañan. Ilkutxarekin batian ereman zute maia eta gurutzte aundi bat, bi aldetaik bi kandela bixtuak; ola egon ze ileriko meza artio.

2.241. Ez da leioik exten ezta galdera bat ere egiten. Apezain gana juaten da barridea, ez balinbada ilen ume edo anaia zenbait juaten. Apezak iakitean ezkilak io azten ditu eta asten dire goratzen otoitzak zerura lurretik atera den animaren alde, aitzen dutenek laister asten dire aite gureak erraten nere ustez biotz biotzetik. Ala autemandut nik beti. Ez dut auteman etxeko aziendari erraten ez eta ere erri ontan bakarrik erlei argizeri geiago indezaten. Belarra erretzea geiago erretzen da eritasuna delaik etxeen or-

duan lisontzi lorea, lizarra, menta belarra eta erramu bedeikatua. Gorputz il bat badago etxean ur bedeikatua botatzen zaio erramu abar batekin. Bizi delaik beztitzen den bezala, baño ongi xagonatu eta ur auserkikin ongi garbitu ondoan. Nere gizona «terciario Franziskano» ze eta eskapulario eta kordoa paratu neko jantzi guzien gañetik.

2.246. Gañera esku gurutzetuen artean gurutze tar pollit bat bere aite eta amein eskutan ereman zutena eta nik uste duden eremain dudena. Ortzi tokian ez da argik bixten. Ilendakoiotzen diren ezkilek deitzen dire «il ezkilak».

2.247. II kutxa zurezkoa izeten de geienendako eta orai paratzen diote zurean eginikako eskulana, obeki apaindua izen dainen. Iruñetik erematen dire, geienak berdintsuek.

2.248. Ontaz errain dut neure aurtasunean, bearbada ez nue bederatzi urteik, ikusi nuena: Andre bat langilea eta ona il ze, eta juan nitze ikusi eta otoitz egitera eta erdi izitua gelditu nitze zuen kolorengatik; andre xuri eta gorri pollit bat ze bere bizian eta gero gelditu zitzao tabakoain iluntasuneik aundieta. Bakarretan etortzen zitzaido gogora, zetaz ote zue ilundura ore. Baño asi nitze iakin naiez zer eritasuneikin il ote zen andre ura eta ez du anitz denbora iakin nuela, min bizioekin il zela. Orduen erran nue: aise artu zue tabakoain koloreain iluntasuna. Ordupo guartu nitze eritasun orrekin iltzen zirenei ilundura ori gelditzen zitzaiotela. Bertze bein il batei edekitzegon bi eskuak eta gurutza erori zitzao eskutik. An otoitz egiten ai zire bide edo iru eta uste dut bidek iauzie egin zute leiotik, izituak gelditu zire denbora puske bateko, baño uste dut izidura aspaldik juan zitzaiotela. Uste dut gogora zaiotela bakarretan: ila arront azia zegola eta azitasunaingatik edeki zuela eskuak eta gurutza utzi zuela eskutik, baño gorputzean zegolakoz il baño len zeukan eritasuna.

Ni aurra nitzelaiak erraten zute xoko aldera beide gelditzen diren ilak ez direla zerura juaten baño ikusi dut xokoan gurutza eta amorio audiarekin gurutzeai beidetzen eta berai beide iltzen. II ondoan euri ona egiten badu erraten da Mezkiritzentz eta bai ere Baztanen erran edo esaera zar bat: *Il onak ur on!*

2.249. Uste dut ez dela itxuraingatik bakarrak guartu bear badugu zerura edo ifernura juan dela au edo bertzea ez da errax aztatzea nora juan den. Baño sandu gisa bizitu bada bat, gaizki eginkak barkatuz, bere agora damana ematen biar-duenai, ez ongi dagonai alguzia eginez senda

daien diren ilundurak argiaziz geuren inguruan. Oietaz bai erran daike aurpegitik ezagutzen da non dagon. Nere gizon senar zenaz erran zire andre batek: Egundeño ez dut ain esku xurik ikusi; niri gogoratu zitzaido... alako pisualdiak egiten zitue beti auserkiak eta emanal guzia bear zuenai ere bai bere buruaz oroitu gabe.

Mezkiritzko erriko denak egon zire nere gizonain ikusten eta beraindeko otoitz egiten. Lenago baze oitura ori gañera denek eman zirete meza saria. ¡Bakarrak atera dire arendako! Ez dut uste badela gisa ortako oituraik.

2.250. Ezta ontarik ere.

2.251. Bai bere kutxan sartua ila sartzen da elizan, baño lenik elizan dagon gurutze batekin juaten dire iru apez, aur eliz mutilez beztia ebetaik sei edo zazpi eta bertze anitz gende gaio eta beren otoitzak egin eta lenik gizonak, etxeen daudenak ilaren aideik urbilenak, juaten dire; gero barridek len, orai bere semeak edo anaiak artzen dute soñera eta erematen dute Elizera eta mai baten gañan elize erditsuan paratzen dire, beti zangoak aldare alderak, eta etxetik elizera ere zangoak altzinean edo elize alderak, seme edo anaiak gañera juaten dire barrideak sañatzeko lemexikoak nekatzen direlaik. Etxetik ateratzen denean ez da sua bota edo ateratzian bertze gauzarik egiten. Geienek negarra, baño biotz guzitik. Etxetik elizera ez da bide bedeikatuik eta bidez bide juaten da niorek makurtu gabe deusten ere. Bidean gelditzen badire, izeten da sañatzeko ile erematen dutenak barridekin. Eta ia eliz aterao erematen da gero soñetik iautsi eta sartzen zaio elizan eta berain erdian mai tiki baten gañan paratzen zaio. Baño orai dela berrogeita amar urte etzire elize barnean sartzen, uzten zire elizeko atarian mai berain gañan. Geienean norbait gelditzen ze ilain zain mezen denboran, ile aurra balin baze ere. Ortzi eguneraño il den etxeen berean egoten da ila.

2.255. Aide eta aixkide guziak juaten zire ileikin batian. Gizonak ila baño len eta andreak gibeletik. Mezara juaten diren geienek Gure Jauna artzen dute. Eta jantziak beltzak dire denak edo geienak. Aski negar eginzaleak izeten dire il denaín aideak, artu gabe negar eginzaleak ebek; uste dut ez dela emengo erri batean ere negar eginzaleik izeten.

2.260. Ilein inguruan kandela edo bela anitz bizten dire; gero argietan sinesmen aundie duenak paratzen dute baño orai, Jaunari eskerrak milezka geiago dute mezan argietan baño. Ga-

ñera yarlekuen tokian orai paratu dituzte andre xar eta gaziendako alkiak eta saietsetan bizten dire argi batzuk baño guti, ez etxe adine len bezala.

2.261. Orai ilen mezak direlaik bixten dire argiak bederatzi urren batean... eta bat bakarra delaik ere.

2.262. Illerian sos poliki biltzen da baño ez ogik eta ez ardorik len bezala. Nere lenagoko denboretan bai ogia erematen ze egunoro eta mezako ofertorio deitzen zenean iasten ze eliz erdira eta elizmutilak biltzen zue saski batera. Il bakotxaindeko bi urtez erematen ze. Geienean balinbaze senide zenbait beartsua arendako izean ze apezak ematen zuena. Niorek ez du uste iatekoik bear dutela animek.

2.263. Ileriak izeten zire lemexiko gisakoak iru mezakoak; 2^{garren} gisakoak, bi mezakoak; eta irugarrenekoak meza bakardunak. Saria, ez dakit lengo aferaik. Orai badakit ez dutela sos bat artu nai. Ematen balin bada, Eliza bereko beartsun batendako, edo erriko senide beartsu batendako orduan artzen du, baño beretako ez du sos bat artu nai, eta ez du anitz denboraik neuronei gertatu zaidela. Elizkizunak egiten dire aluziak; baño neure denbora guzian ezagutu dudena da edozein ilebeteko egunean il eta lau urtez bedere ilebete guzioro meza sandua egun artan. Il bida seian ilebete guzietan seian meza, eta amarrean il bida amarrean meza eta urteoro agorrain amekan il balin bida agorrain amekan meza; baño gañera Orreagara zenbat meza sari erematen ote dire erri ontako ilendako! Goian beude denak! Lenago errespontsu anitz ematen ze baño kontziliotik onat uste dut ez dela bat ere ematen.

Gauza ebek etxeko andreatin kontura izeten dire.

2.264. Olatsu bi metro inguruan luze eta arabera berea zabaltasune. Etxe bakotxak bi ilentokia du. Emen gurutze bat bakarrik paratu badiot ere, geienei, il bakotxai berea paratzen zaio. Etxe bakotxak bere il tokia badu bere ireztorrie duen bezala. Ez dut uste nior inguraldi ematen aitiko dirala ez iltegiari eta ez elizari.

2.265. Etxe bereko denek balinbada tokik aski.

2.266. Aide al duten guziek eta ilerrira etorri direnak eta erriko guziek.

2.267. Goraldian burua eta zangoak beiti, buraldean paratzen zaiote gurutzea geroxago, irulebeten buruan.

2.268. Ori ez dakit.

2.269. Ez dut uste badela ez-berdintasunik deusere. Onen altzinean eta bertze onen gibeletik juan bear dute. Beti ere ez dut egundeño ez ikusi eta ez aitu ere egiten dela deus ere alakoik. Etxean ilein bi aldetaik biztuik egon diren kandelak gordeko dire bear bada.

2.270. Ez dut ikusi sekula etxean sartu baño len otoitz egiten argi baten edo su puske baten altzinean... nik ez dut aitu ere sekula.

2.271. Lenago mezak, ilerikoak, entzun eta ondoan lurperatzen ze ila eta orduan eta orai, denek, lur pixka bat botatzen zaio ilaren kutxa gañera eta nik seurik erraten daitet «Jaungoikoak naidueneraño». Orduen juaten da ilaren etxera eta ematen zute bazzkaltzera, ni ez naiz egundeño bazzkaltzen gelditu neure erri berean baño ilerie bertze erri batean balinba ze eta aideak eta dei egin bazigute juaten nitze eta nik uste izen dut arront berdina zela bazzkaria. Deitzen ze ileri-bazzkaria eta ianariak ebek zire: Fideo zopa, aragi saldarekin egina, txitxirioa ongi egosi eta egina aragi egosia ateratzen zute plater batean eta tomate frexitue bertze batean nasi gabe bakotxak egin zezan nai zuena. Eta gero tzikiro errea, eta gero arroza esnearekin egosia bazzkal ondokoa edo postrea. Eta gero aketa edo kafea anis edo koñak nai zutenendako. Errea ian baño len egiten zire otoitz batzuk: lenik, orduko ilarendako gero aren aita eta amarendako, gero etxe artako il ziren animendako, erri artan il ziren guziendako eta ondar(reen) aite gurea gin-deudenetan lamexiko il bear zuenarendako. Otoitz ebek ematen zitue apez bat balin baze arek eta bertzelaz gizonen artean aiderik urbilenak. Nere etxeko aitatzik egin omen zitue bere goñatu baten ilari bazzkarian eta bera il omen ze urbilena, eta laister gañera alborengo edo pulmonia deitzen den eritasunaikin. Eta nere aitari ere bertze ainbertze: bere arreba baten senarra, gañera barridea, il ze eta nere aitak eginalak egin zio bere arrebari. Berak egin zitue egiten ziren otoitz guziak eta utzi gabe ondar aitegurea an ziren guzietan lenik il bear zuenain animendako eta bera juan ze lemexiko. Egun ura ze Azaroain amalauean eta Abenduaren amalauean il ze. Erri ebatko oitura delakoz errebatzen da.